

2017.10.10
LURRALDE ANTOLAMENDUKO 44. bilerako AKTA
A.G., K.F., X.I., I.A.

Gaiak:


1. Frontoiaren irisgarritasunerako herri-galdeketa

Herri-galdeketa zehaztasunak eztabaidatu ondoren, behin-betiko egutegia eta ordutegia finkatu ziren.

Aurrekoarekin batera bozketaren ezaugarriak eta etxez-etxe banatuko den idatziaren edukia onartu zen, ondoren doan moduan:



ITSASONDOKO
UDALA



ERROTA FRONTOIAREN IRISGARRITASUNA

AUKERA DESBERDINEN ARTEKO **BOZKETA**

Non: Itsasondoko Udaletxean

Noiz: 2017ko urriaren 17tik 20ra

Ordutegia: goizez 8:30 - 14:00
arratsaldez: 17:00 - 19:00

Nork: 16 urtetik gorako itsasondotar guztiek. Adin txikikoek eskolan bozkatzeko aukera izango dute eta emaitzari 10 botoen balioa emango zaio.

Oinezkoak eta ibilgailuak Errota frontoira iristeko dituzten zailtasunak konpontzeko dauden 3 aukera desberdinen artean bozkatzeko aukera izango da. Oraingo egoera mantentzearen aldekoek ere **0 aukera** bozkatzeko parada izango dute.

Bozka sekretua izango da eta emaitza erabakigarria izateko erroldako %10aren parte-hartzea beharko da. Emaitza hori lortu ezean, erabakia Udal-gobernuaren esku geratuko da.

